

**EBAZPENA, 2010eko otsailaren 22koa, HABEren zuzendari nagusiarena, Helduen Euskalduntzearen laugarren mailarako berariazko gaikuntza-ikastaroa egina izan eta Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren maila egiaztatu behar duten irakasleentzat 2010. urteko azterketaren deialdia egiten duena.**

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak zehaztu zuen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako euskararen ezagutza-mailak egiaztatzeko sistema.

Aipatutako abuztuaren 6ko Aginduaren 8. artikulua ezartzen du, mailek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak lortzeko, ezinbestekoa izango dela maila bakoitzari dagokion gaitasun-azterketa gainditzea. Halaber, Agindu horren 9. artikulua, ziurtagiriak lortzeko azterketen ezaugarri orokorreki buruzkoak, ahalmena ematen dio HABEren zuzendari nagusiari maila egiaztatzeko azterketa bakoitzaren nondik norakoak ezartzeko, ebazpen bidez egindako deialdiz. Orobat, Aginduak berak dio, 2. xedapen gehigarrian: "Laugarren mailari dagokionez, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko curriculumean zehazten diren maila honetako helburuak lortzeko edukiak landu, garatu eta ikastaro bereziak ezarri ondoren egingo da azterketa-deialdia eta egingo dira ziurtagiriak". Bestalde, laugarren mailako eduki horiek, ebaluazio-irizpideekin batera, Kultura sailburuaren 2006ko martxoaren 13ko Aginduak onartu zituen.

Hain zuzen, laugarren maila egiaztatzeko deialdia egin zuen HABEren zuzendari nagusiak 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenaren bidez.

Halaber, badira zenbait irakasle, nahiz eta Helduen Euskalduntzearen laugarren mailarako HABEren berariazko prestaketa hartu edo gaikuntza-ikastaroa egiten ari, laugarren mailako agiririk ez dutenak. Hori kontuan izanik, beharrezkotzat jotzen da irakasle horientzat, hain zuzen, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluak ezarritako laugarren mailari dagokion azterketaren 2010eko deialdia egitea.

Hori dela eta,



## EBAZTEN DUT

### DEIALDIAREN XEHETASUNAK

#### **1. artikulua.**– Helburua.

Ebazpen honen xedea da Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren mailarako gaikuntza-ikastaroa gainditzen duten irakasleentzat maila hori egiaztatzeko 2010 urteko deialdiaren baldintzak arautzea.

Deialdi bakarra izango da 2010ean.

#### **2. artikulua.**– Deialdi honetara aurkezteko azterketariak bete beharreko gutxienekoak.

Azterketariak izan beharko du Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren hirugarren maila edo honen baliokide den agiriaren jabe eta laugarren mailarako gaikuntza-ikastaroa gainditua 2009an edo 2010ean.

#### **3. artikulua.**– Deialdiaren egutegia.

HABEk [www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net) atarian emango du jakitera deialdia egituratzeko antolatu den egutegia: matrikula-epea; onartuen behin-behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda argitaratzeko egunak; probaren data; behin-behineko emaitzak argitaratze-eguna eta emaitza orokorrak jakinarazteko data.

#### **4. artikulua.**– Azterketaldiaren noiz-nongoak.

Laugarren maila egiaztatzeko azterketak bi proba izango ditu: ahozkoa eta idatzia.

Ebazpen hau indarrean jarri eta hamar eguneko epean jarriko ditu HABEK, [www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net) atarian, deialdi honetarako aurreikusitako datak eta lekuak.

#### **5. artikulua.**– Azterketaren ezaugarriak, antolamendu-modua, ebaluazio-irizpideak eta atalez ataleko kalifikazioak.

Zur

**HABE**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Laugarren mailako azterketak ahozko eta idatzizko gaitasun komunikatiboa neurtuko ditu, trebetasunez trebetasun, proba idatziak eta ahozkoa erabiliz.

Idazmena. Azterketariak, 2008-2009an edo 2009-2010ean laugarren mailarako gaikuntza-ikastaroan ezarritako proiektua aurkeztuko du HABEren egoitzan, 2010eko maiatzaren 28rako.

Entzumena eta irakurmena. Entzumena neurtzeko proban, testu bat entzungo dute azterketariak, eta hitz gutxitan (50-70 hitzetan) laburbilduko dute idatziz. Irakurmenarenean, azterketariak, testu bat irakurri ondoren, hitz gutxitan (50-70 hitzetan) laburbilduko dute idatziz. Ordubeteko iraupena izango dute bi probek batera.

Mintzamina. Aurreko bi proben ondoren neurtuko da. Idazmena neurtzeko proban landutako gaia izango du hizpide azterketariak, ordu erdi lehenago adieraziko zaion ekintza komunikatiboa gauzatzeko aztertzaileen aurrean. Probak berak 10 minutu inguru iraungo du.

Azterketaren bi zatiak eta trebetasun bakoitzaren neurketarako I. eranskinean eman gutxienekoak gainditu beharko ditu azterketariak azterketa gaindituzat emateko. Azterketak denera 100 puntu izango ditu gehienez, eta gainditzeko, gutxienez, 50 puntu lortu beharko ditu azterketariak.

**6. artikulua.**– Azterketen emaitzak.

Azterketa-batzordearen Erabakiz, azterketen behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitaratuko dira [www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net) atarian, kalifikazioetarako emandako banaketa-taulari jarraiki.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.**– Deialdi honi dagozkion beste xehetasunak (matrikula-ordaina, matrikula bideratzeko era, azterketarien egoera bereziak, onartuen zerrenda eta erreklamazioak eta gora jotzeak) eta antolaketari dagozkionak ere, 8.1, 8.2 eta 9. artikuluetan izan




# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ezik, HABEren zuzendari nagusiaren 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenari atxikita egongo dira. Baita ziurtagiri eta frogagiriei eta datu pertsonalen babesari dagozkionak ere.

Donostian, 2010eko otsailaren 22an.



HABEren zuzendari nagusia,

EUGENIO MUJIKA GALPARSO

**HABE**

Helduen  
Alfabetatze eta  
Berreuskalduntzerako  
Erakundea

## I. ERANSKINA

### LAUGARREN MAILA EGIAZTATZEKO AZTERKETA: EZAUGARRIAK, ANTOLAMENDU-MODUA, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA ATALEZ ATALEKO KALIFIKAZIOAK

Proba idatzia

Irakurmena:

Azterketariak emandako testu bat irakurriko du. Ondoren, hitz gutxitan (50-70 hitzetan) laburbilduko du idatziz.

Entzumena:

Testu bat grabatuta entzungo du azterketariak, eta hitz gutxitan (50-70 hitzetan) laburbilduko du idatziz.

Idatzizko proba honen iraupena ordubetekoa izango da, gehienez.

Ahozko proba

Mintzamina:

Gaikuntza ikastaroan egin proiektuan jorratutako gaia izango du hizpide azterketariak, ordu erdi lehenago adieraziko zaion ekintza komunikatiboa gauzatzeko aztertzaileen aurrean.

Ariketak berak 10 minutu inguru iraungo du.

Ebaluatzeko irizpideak:

Idazmenaren eta mintzamenaren probak ebaluatzerakoan, kontuan izango dira a) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona, eta b) zuzen (gramatikaren arauak betez) eta egoki (testuinguruaren arabera eta testuaren legeen arabera) egin duen.

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Entzumenaren eta irakurmenaren probak ebaluatzerakoan, kontuan izango da a) zer neurritan egin duen azterketariak agindu zaiona eta b) zuzen eta egoki egin duen.

Kalifikazioak:

Ahozko eta idatzizko azterketen kalifikazioak horrela emango dira:

A)

#### 4. MAILA: AZTERKETAREN ATALAK ETA KALIFIKAZIOAK

KALIFIKAZIOA	Guztira	Gutxienez
<b>A) PROBA IDATZIA</b>		
Irakurmena	20	10
Idazmena	30	15
Guztira A multzoa	50	25
<b>B) AHOZKO PROBA</b>		
Entzumena	20	10
Mintzamena	30	15
Guztira B multzoa	50	25
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>50</b>

Azterketariak lau trebetasunak (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamena) gainditu beharko ditu.

B) Eraitza:

Idatzia: *gai/ez gai*

Ahozkoa: *gai/ez gai*

Guztira: *gai/ez gai*